

DURANGO
Udala • Ayuntamiento
Idazkaritza
Secretaría



**BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO OGASUN ETA
FINANTZA SAILAREN ETA DURANGOKO UDA-
LAREN ARTEKO HITZARMENA HORREN ZU-
ZENBIDE PUBLIKOKO SARRERAK
NAHITAEZKO PROZEDURAREN BITARTEZ
BILTZEKO.**

Bilbon, 2021eko otsailaren 16a

BILDU DIRENAK:

Batetik, José María Iruarizaga Artaraz, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatua; bestetik, Inmaculada Garrastatxu Urbaneja, Durangoko Udalaren Alkatea/Lehendakaria.

JARDUTEKO MODUA:

Lehenengoak Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatua den aldetik jardun du, haren izenean eta ordezkaritza, Gobernu Kontseiluak 2012ko abenduaren 18an hartutako 12. erabakia dela bide.

Besteak Durangoko Udalaren izenean eta ordezkaritza jardun du; haren ordezkari jarduteko ahalordea eta egintza honetan parte hartzeko ahalmenak dauzka Osoko Bilkurak 2020ko abenduaren 22an hartutako 3. erabakia dela bide.

ADIERAZI DUTENA:

1.- Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua Bizkaiko toki erakundeei aplikatzen zaie lurralde historiko horretako toki ogasunei buruzko arautegian ezarritakoarekin bat etorritik. Foru arau horretako 5.5 artikulua dio toki erakundeen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko lankidetzarako formulak ezar daitezkeela zergak aplikatzeko.

2.- Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauko 8.1 artikuluan haxe ezarri da: "Toki erakundeek eta Foru Aldundiak elkarlanean jardungo dute, berariazko hitzarmena sinaturik,

CONVENIO ENTRE EL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA Y EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO PARA LA RECAUDACIÓN EJECUTIVA DE LOS INGRESOS DE DERECHO PÚBLICO DE ÉSTA.

Bilbao, a 16 de febrero de 2021.

REUNIDOS:

De una parte José María Iruarizaga Artaraz en calidad de Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, y de la otra Inmaculada Garrastatxu Urbaneja Alcalde/Presidente del Ayuntamiento de Durango.

INTERVIENEN:


El primero en calidad de Diputado Foral de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia, actuando en nombre y representación de esta en virtud del acuerdo de Consejo de Gobierno, asunto nº 12 de fecha 18 de diciembre de 2012.

La segunda, en nombre y representación del Ayuntamiento de Durango, con poder para representarlo y con facultades para este acto según se desprende del Acuerdo adoptado en pleno de sesión ordinaria de 22 de diciembre de 2020, asunto nº 3.

MANIFIESTAN:

1.- Que la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, de aplicación a las Entidades Locales de Bizkaia, en los términos establecidos en la normativa reguladora de las Haciendas Locales de este Territorio Histórico, establece en su art. 5.5 que podrán establecerse fórmulas de colaboración para la aplicación de los tributos entre las Entidades Locales y la Diputación Foral de Bizkaia.

2.- Que la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales, establece en el art. 8.1: "Las Entidades Locales y la Diputación Foral de Bizkaia colaborarán mediante la suscripción del oportuno



tributuen eta zuzenbide publikoko gainerako sarreraren aplikazioari dagokion guztian”.

3.- Abuztuaren 21eko 125/2019 Foru Dekretuak Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketaren Araudia onetsi zuen. Araudiko 2.5 artikulua hauxe ezarri du: “Ogasun eta Finantza Sailak bere gain hartu ahal izango du beste administrazio edo izaki publiko batzuen baliabideen bilketa, behar diren hitzarmenak formalizatuz. Halaber, legeek edo foru arauak ezartzen dituzten beste herri administrazio batzuen berezko zerga-bilketako lankidetzajarduketak burutuko ditu”.

Ondorioz, hauxe

ADOSTU DUTE:

Hitzarmen hau formalizatuko dute ordainarazteko aldiaren dauden kreditu eta eskubide publiko batzuen premiamenduaren prozedura administrazioaren bidez biltzeko

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- XEDEA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA.

Hitzarmen administrazio honen bitartez Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak Durangoko Udala Toki Erakundeak hartzeko dituen Zuzenbide Publikoko sarrera batzuen ordainarazteko prozeduraren bidez biltzeko lanak kudeaketa hartu du, eskuordetza dela bide. Prozedura horren kudeaketan ondoko hauek aplikatuko dira:

- a) Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorra, martxoaren 10ekoa; toki ogasunei buruzko arautegia; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubideko Oinarriak ezarri dituena
- b) Aurrekontuei buruzko 5/2006 Foru Arau Orokorra, abenduaren 29koa.

Convenio, en todos los órdenes de la aplicación de los tributos y de los restantes ingresos de derecho público”.

3.- Que el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Bizkaia aprobado por Decreto Foral 125/2019, de 21 de agosto, dispone en su art 2.5 que “ El Departamento de Hacienda y Finanzas podrá asumir la recaudación de los recursos de otras Administraciones Públicas o Entes Públicos mediante la formalización de los oportunos Convenios. Asimismo, realizará las actuaciones de colaboración en la recaudación propias de otras administraciones públicas que establezcan las Leyes o las Normas Forales”.

En consecuencia,

ACUERDAN:


Formalizar el presente Convenio para la recaudación en periodo ejecutivo por el procedimiento administrativo de apremio, de determinados créditos y derechos públicos, que se registrará por las siguientes

ESTIPULACIONES

PRIMERA.- OBJETO Y RÉGIMEN JURÍDICO.

Por el presente convenio, que tiene naturaleza administrativa, el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia asume por delegación la gestión recaudatoria ejecutiva de ingresos de derecho público que constituyen el haber de la entidad local Ayuntamiento de Durango, rigiéndose dicha gestión:

- a) Por el texto de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria y normativa de Haciendas Locales y la Ley 7/1985 de 2 de abril Reguladora de las Bases de Régimen Local.
- b) Por la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria.



- c) 125/2019 Foru Dekretua, abuztuaren 21ekoa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-bilketako Araudia onetsi duena; Foru Administrazioaren zerga-bilketan aplikatu beharreko gainerako arauak.

- d) Hitzarmen honetan ezarritakoa.

BIGARRENA.- APLIKAZIO-EREMUA.

Hitzarmen honetan ezarritako kopuruen bilketaren kudeaketarako Foru Administrazioaren eskubideak nahitaez biltzeko erabiltzen diren informazio-iturri eta prozedura tekniko eurak erabiliko dira.

Hitzarmen honetan xedatutakoak ez ditu eragotziko Durangoko Udalak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga kudeatzeko Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailarekin sinatutako hitzarmenak. (beharrezkoa denean)

HIRUGARRENA.- EGITEKOEN BANAKETA.

1.- Durangoko Toki Erakundearen egitekoak dira:

- a) Bildu beharreko zorren likidazioen sorburuaren inguruko gorabeherak eta errekursoak ebaztea, behar denean.
- b) Berraztertze errekursoaren bidez aurkaratzen diren likidazioak eta premiamendu-probidentziak eteteko eskaerak izapidetzea eta ebaztea.
- c) Premiamendu-probidentziak ematea.
- d) Zordunak huts egintzat eta kredituak ko-braezintzat jotzeko erabakiak hartzea.

2.- Ogasun eta Finantza Sailaren egitekoak dira:

- a) Aurreko 1. puntuan aipatu ez diren pre-

- c) Por el Decreto Foral 125/2019, de 21 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Bizkaia y demás normativa de aplicable a la recaudación de la Administración Foral.

- d) Por las estipulaciones de este Convenio.

SEGUNDA.- ÁMBITO DE APLICACIÓN.

La gestión recaudatoria del presente Convenio se realizará, haciendo uso de los mismos medios de información y procedimientos técnicos que los utilizados para la recaudación ejecutiva de los derechos de la Administración Foral.

Lo dispuesto en este Convenio se entenderá sin perjuicio de los Convenios suscritos por el Ayuntamiento de Durango con el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia en relación a la gestión del Impuesto sobre Actividades Económicas e Impuesto sobre Bienes Inmuebles. (cuando proceda)


TERCERA.- DISTRIBUCIÓN DE FUNCIONES.

1.- Corresponde a la Entidad Local Ayuntamiento de Durango:

- a) Resolver las incidencias y recursos relacionados con el origen de las liquidaciones de las deudas a recaudar, cuando proceda.
- b) Tramitar y resolver las solicitudes de suspensión del acto impugnado en reposición contra las liquidaciones y contra la emisión de la providencia de apremio.
- c) Emitir la providencia de apremio.
- d) Acordar la declaración de fallido y de créditos incobrables.

2.- Corresponde al Departamento de Hacienda y Finanzas:

- a) Las actuaciones del procedimiento admi-



miamendu prozedura administratiboko jarduketak.

- b) Premiamendu-probidentziak jakinaraztea.
- c) Premiamendu bidez kobratu nahi den zorren berandutza-korrituak, premiamendu-probidentzia ematen den egunetik aurrera sortuak, likidatzea eta eskatzea.
- d) Premiamendu prozeduretan abiarazten diren hirugarrengotzak ebaztea.
- e) Hitzarmen honen xede diren kobrantza-eskubideetatik konkurtso-prozeduran daudenak defendatzea. Hori dela eta, epaiketetan Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkarietan eta defentsan eskumen horiek dauzkana ariko da, aurreko paragrafoetan ezarritakoa gorabehera.

Ogasun eta Finantza Sailak konkurtso-prozeduran ziurtatutako kredituen berri emango dio Toki Erakundeari, eta honek haien defentsaren ardura hartu ahal izango du, nahi izanez gero.

Ezartzen den lankidetzaren berezia gorabehera, Bizkaiko Foru Aldundiak konkurtsoa amaitzeko proposatzen diren eta hitzarmen honetako kredituetan eragina izan dezaketen akordio eta hitzarmen guztien berri emango dio Toki Erakundeari, eta nola jokatu behar duen azalduko dio. Egutegiko hurrengo hamar egunetan besterik adierazten ez badu, Toki Erakundea Aldundiak esandakoarekin bat datorrela pentsatuko da.

- f) Durangoko Udala Toki Erakundeari proposatzea zordunak huts egintzat eta kredituak kobraezintzat jotzea.
- g) Hitzarmen honen xede diren eskubideak biltzeko Ogasun eta Finantza Saileko organo egokiak premiamendu prozeduran ematen dituen egintzen kontra aurkezten diren errekursoak eta erreklamazioak aztertzea eta ebaztea, eta aurkaratutako


nistrativo de apremio no citadas en el punto 1 anterior.

- b) Notificar la providencia de apremio, en su caso.
- c) Liquidar y exigir los intereses de demora de la deuda apremiada, a partir de la fecha de la emisión de la providencia de apremio.
- d) Resolver tercerías que pudieran promoverse en el procedimiento de apremio.
- e) La defensa de los derechos de cobro objeto del presente convenio que se hallen sujetos al proceso concursal. A estos efectos la representación y defensa en juicio corresponderá a quienes tengan atribuida esa competencia respecto de la Diputación Foral de Bizkaia, sin perjuicio de lo señalado en los párrafos siguientes.

El Departamento de Hacienda y Finanzas dará traslado de los créditos que hayan sido certificados en el proceso concursal a la Entidad Local, la cual podrá asumir su defensa si lo considera oportuno.

Sin perjuicio de la colaboración específica que pueda establecerse la Diputación Foral de Bizkaia dará traslado a la Entidad Local de cualquier acuerdo y convenio concursal que se proponga, que pueda afectar a los créditos del presente Convenio, trasladando las posturas a adoptar y entendiéndose la conformidad de la entidad si en los diez días naturales siguientes no manifiesta otra cosa.

- f) Proponer a la Entidad Local Ayuntamiento de Durango la declaración de fallido y créditos incobrables.
- g) Conocer y resolver en vía administrativa de los recursos y reclamaciones interpuestas contra los actos de gestión recaudatoria de los derechos objeto del presente convenio, dictados por el órgano correspondiente del Departamento de Hacienda y Finanzas en



egintzak eteteko eskaerak izapidetzea eta ebaztea

- h) Premiamendu prozeduran kautelazko neurriak ezartzea.
- i) Premiamendu prozeduran bermeak atxikitzea.
- j) Egin beharreko jarduketa guztiak egin ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak bilketa prozesuan jakiten badu erantzukizuna eskatzea dakarren zerbait gertatu dela, Toki Erakundeari proposatzea erantzukizun solidarioa edo subsidiarioa bideratzeko egintza administratiboa.

Aurrekoa gorabehera, jaraunsleek eta Zergei buzko Foru Arau Orokorreko 41.4 artikuluan ezarritakoaren arabera erantzukizun solidarioa daukatenek ordaindu beharrekoa biltzeko kudeaketan Ogasun eta Finantza Sailak egingo ditu.

3.- Administrazioen arteko koordinazioa.

Interesdunek egiten dituzten jarduketak eta bi administrazioetako organoei aurkezten dizkieten agiriak organo jasotzaileak onartuko ditu eta organo eskudunari bidaliko zaizkio edo beraien berri emango zaio.

LAUGARRENA.- PROZEDURA.

1.- Bilketaren hasiera:

Durangoko Toki Erakundeak premiamendu prozeduran dauzkan zorren zerrenda Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari bidaliko zaio bi administrazioek hitzartzen dituzten euskarri informatikoetan.

Aldundiari kobratzeko bidaltzen zaizkion zorretan baldintza hauek bete behar dira:

el procedimiento de apremio así como tramitar y resolver, en esta fase, las solicitudes de suspensión del acto impugnado.

- h) Adopción de medidas cautelares en el procedimiento de apremio.
- i) Ejecución de garantías en el procedimiento de apremio.
- j) Proponer, a la Entidad Local, una vez realizadas las correspondientes actuaciones, que se dicte acto administrativo de derivación de responsabilidad solidaria o subsidiaria, cuando el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia en el proceso recaudatorio tenga conocimiento de alguno de los supuestos de exigencia de responsabilidad.

No obstante lo anterior, corresponderá al Departamento de Hacienda y Finanzas la gestión recaudatoria frente a los sucesores y frente al supuesto de responsabilidad solidaria establecido en el art. 41.4 de la Norma Foral General Tributaria.

3.- Coordinación entre ambas administraciones.


Las actuaciones realizadas por los interesados o documentos presentados por los mismos ante los órganos de ambas Administraciones, serán admitidas por el órgano receptor y comunicados o remitidos al órgano competente.

CUARTA.- PROCEDIMIENTO.

1.- Iniciación de la actividad recaudatoria.

La relación de deudas apremiadas por la Entidad Local Ayuntamiento de Durango, se remitirá al Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia mediante los soportes informáticos que se acuerden.

En las deudas que se remitan para su cobro deberán concurrir los siguientes requisitos:



a.- Zorraren zenbatekoa, banaka, 12 eurotik gorakoa izan behar da.

b.- Zordunaren zorra, guztira, berrogeita hamar eurotik gorakoa izan behar da.

Ez da onartuko zordunketa egunaren ondoko hiru hiletan zehar preskribatuko den zorrik.

2.- Zorrak bidaltzea.

Zorrak onartu baino lehen haien zerrenda aztertuko dute Aldundiaren zerbitzu informatikoei, eta itundutakoarekin bat datozenak soilik onartuko dituzte; gainerakoak ezetsi egingo dira. Zorrak balidatzeko egiaztapen-prozesuaren emaitza positiboa bada, Ogasun eta Finantza Sailak zerrenda kudeatzea onartuko du.

Zorrak behin betiko onartzeko ezinbestekoa izango da Foru Administrazioako organo eskudunak egiten dituen balidazioen emaitza positiboa izatea.

Datuak oker badaude eta errua Durangoko Udala Toki Erakundeari egotzi ahal bazaio, erakundeak bere gain hartu beharko du horren ondorioen erantzukizuna.

3.- Bidegabeko sarreraren itzulketa.

Foru Administrazioak ondoko kasuan soilik itzuliko du bidegabe sartutako kopurua: sarrera bilketa-prozesuan izandako gorabehera baten ondorioz edo oker material, egitatezko edo aritmetiko baten ondorioz gertatu bada eta bildutako kopurua Toki Erakundeari likidatzeko badago.

BOSGARRENA.- TOKI ERAKUNDEARENTZAKO LIKIDAZIOAK ETA FUNTS-TRANSFERENTZIAK.

1.- Likidazioak.

a.- Ser la deuda de manera individualizada de importe superior a 12 euros.

b.- Adeudar el obligado al pago más de cincuenta euros.

En ningún caso se aceptarán deudas cuya fecha de posible prescripción se encuentre dentro de los tres meses siguientes a la fecha de cargo.

2.- Envío de deudas.

Antes de su aceptación, la relación de deudas será sometida a validación por los servicios informáticos correspondientes de la Administración Foral, verificando que sus características se ajustan a las especificaciones pactadas, rechazándose en caso contrario. Si el proceso de verificación resultante de la aplicación de las validaciones especificadas es positivo se procederá a admitir la relación de deudas que hayan de ser gestionadas por el Departamento de Hacienda y Finanzas.

La aceptación definitiva queda condicionada a las validaciones que se hayan podido efectuar por el órgano competente de la Administración Foral.


En caso de que los datos consignados sean incorrectos, la Entidad Local Ayuntamiento de Durango será responsable de los efectos que puedan producirse por dicha causa siempre y cuando estos efectos sean consecuencia de error atribuible a la propia Entidad Local.

3.- Devolución de ingresos indebidos

La Administración Foral únicamente practicará las devoluciones de ingresos indebidos que sean consecuencia de las incidencias en el procedimiento recaudatorio, o motivadas por un error material de hecho o aritmético, cuando los ingresos recaudados se encuentren pendientes de liquidar a la Entidad Local.

QUINTA.- LIQUIDACIONES Y TRASFERENCIAS DE FONDOS A LA ENTIDAD LOCAL

1.- Liquidaciones.



Hil batean biltzen diren zenbatekoak hurrengo hilean likidatuko dira.

Sarreraren guztirako zenbatekotik hitzarmen hone-tako laugarren oinarriko hirugarren puntuan eza-rritakoaren arabera bidegabetzat jo eta itzuli be-harreko sarrerak kendu behar dira.

Likidazioarekin batera Ogasun eta Finantza Sailak zorren mugimenduen berri emango dio Toki Era-kundeari, xehatuta.

2.- Funts-transferentzia.

Toki Erakundearen aldeko hileko zenbatekoak hark esandako banku-kontura transferituko dira. Likidazio baten ondorioz Toki Erakundeak dirua zor badu, zor duena hurrengo hiletako likidazioekin konpentsatuko da. Salbuespena: Toki Era-kundearen zorra abenduko likidazioan gertatzen bada, Ogasun eta Finantza Sailak adierazten duen kontura transferentzia bat eginez ordaintzeko eskatuko zaio.

SEIGARRENA. DURANGOKO UDALA TOKI ERAKUNDEARENTZAKO INFORMAZIOA.

Ogasun eta Finantza Sailak hileko likidazioarekin batera jasotako sarrerei eta egindako itzulketei buruzko informazioa bidaliko dio Durangoko Udala Toki Erakundeari.

Urtero bidalitako zorren zerrenda xehatua bidaliko zaio Toki Erakundeari.

ZAZPIGARRENA.- OGASUN ETA FINANTZA SAILARENTZAKO INFORMAZIOA.

Sei hilean behin Toki Erakundeak udalerrian ones-ten eta aplikatzen diren hiri antolamenduko tresnei buruzko informazioa bidali behar dio Ogasun eta Finantza Sailari.

Gainera, aldi horretan ematen diren hemezortzi mila eurotik gorako burutzapen-aurrekontudun hirigintzako lizentzien (lehenengo okupazioa, obrak

Se practicarà cada mes liquidación de los importes recaudados el mes anterior.

Del total computado como ingreso, se descontarán las devoluciones de ingresos indebidos practicadas conforme a lo previsto en la Base cuarta punto tercero de este Convenio.

Acompañando a esta liquidación el Departamento de Hacienda y Finanzas enviará a la entidad el detalle de los movimientos de sus deudas.

2.- Tránsito de fondos.

Los importes mensuales resultantes a favor de la Entidad Local serán transferidos a la cuenta ban-caria que con este fin haya designado la misma. En los casos en que, practicada la liquidación, resulte deudora la Entidad Local, se compensará el importe en sucesivas liquidaciones mensuales, salvo cuando se trate de la liquidación del mes de diciembre, en cuyo caso se requerirá a la Entidad Local para que efectúe su pago mediante transferencia a la cuenta que se indique por el Departamento de Hacienda y Finanzas.

SEXTA.- INFORMACIÓN A LA ENTIDAD LOCAL AYUNTAMIENTO DE DURANGO.


El Departamento de Hacienda y Finanzas, enviará a la Entidad Local Ayuntamiento de Durango la información mensual junto con la liquidación, de los ingresos recibidos y de las devoluciones practicadas.

Anualmente se facilitará a la Entidad Local, una relación detallada de la situación de las deudas enviadas.

SÉPTIMA.- INFORMACIÓN AL DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

La Entidad Local enviará semestralmente al De-partamento de Hacienda y Finanzas información de los instrumentos de planeamiento urbanístico que se aprueben y ejecuten en el municipio.

Además remitirá también en el mismo período, información relativa de los titulares de las licencias urbanísticas (primera ocupación, obras etc.),



etab.) titularrei eta taxi-lizentzien eta administrazio emakiden titularrei buruzko informazioa bidali behar dio, bai eta exekutatu daitezkeen ondasun edo eskubide guztiei buruzko informazioa ere, eta horretarako Ogasun eta Finantza Sailak ezartzen duen euskarria erabili behar du.

Hala ere, hitzarmena sinatu ondoko lehen bidalketan hitzarmena sinatzean aurrean aipatutako ondasun eta eskubideei buruz daukan informazio guztia eman behar dio Ogasun eta Finantza Sailari. Hirigintzako lizentziak direla eta, hitzarmena sinatu aurreko urtean emandako guztien berri eman behar du.

ZORTZIGARRENA.- ZERBITZUAREN KOSTUA.

Zerbitzuaren kostua biltzen den zenbateko garbiaren %5 izango da; horixe ordaindu beharko dio Toki Erakundeak Foru Aldundiari. Hala ere, 10.000 biztanle baino gutxiagoko toki erakundeek biltzen den zenbateko garbiaren %1 ordaindu beharko dute.

BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENA SINATU AURREKO ZORRAK.

Premiamendu-probidentzia hitzarmena sinatu baino lehen jakinarazi den zorrak hitzarmenean sartu ahal izango dira Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko bilketa-organoak berrikusi ondoren.

HAMARGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA.

Hitzarmen hau sinatu ondoko egunetik 2025eko otsailaren 16ra arte egongo da indarrean. Egun horretatik aurrera indarraldia urtetik urtera luzatuko da isilbidez.

Alderdi biek salatu ahal izango dute hitzarmena. Hala gertatuz gero, salaketa aurkezten denetik hilabete pasatutakoan hitzarmena azkenduko da.

superiores a dieciocho mil euros de presupuesto de ejecución material, licencias de taxis, concesiones administrativas, así como la información de cualquier otro bien o derecho que sea ejecutable, en el soporte que el departamento de Hacienda y Finanzas establezca.

No obstante lo anterior, después de la firma del convenio y como primer envío se remitirá al Departamento de Hacienda y Finanzas, toda la información vigente a la fecha de la firma del convenio, relativa a los bienes o derechos referidos más arriba. Respecto a las licencias urbanísticas otorgadas, se remitirán todas aquellas concedidas en el último año anterior a la firma del Convenio.

OCTAVA.- COSTE DEL SERVICIO.

Se fija el coste del servicio a abonar por la entidad local en un 5% del volumen de la recaudación neta. No obstante lo anterior para aquellas entidades locales con menos de 10.000 habitantes se fija el coste del servicio en un 1% de la recaudación neta.


NOVENA.- DEUDAS ANTERIORES A LA FIRMA DEL CONVENIO.

Las deudas cuya notificación de la providencia de apremio se haya realizado con anterioridad a la firma de este convenio podrán ser incluidos en el mismo previa revisión por el órgano de recaudación del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia.

DÉCIMA.- VIGENCIA DEL CONVENIO.

El presente Convenio tendrá vigencia desde el día siguiente al de su firma, hasta el día 16 de febrero de 2025. Al término de dicho periodo se entenderá tácitamente prorrogado a plazos anuales sucesivos.

Cualquiera de las partes podrá denunciar el convenio lo que supondrá su vencimiento transcurrido el plazo de un mes desde su denuncia.



DURANGO
Udala • Ayuntamiento
.....
Idazkaritza
Secretaría



**HAMAIKAGARRENA.-
ESKUDUNA.**

JURISDIKZIO

Hitzarmen honen interpretazioaren, burutzapenaren, iraungipenaren, azkentzearen eta ondoreen inguruan sortzen diren auziak ebazteko eskumena administrazioarekiko auzien ordenako epaitegiek edukiko dute.

Sin/Fdo: José María Iruarizaga Artaraz

UNDÉCIMA.- JURISDICCIÓN COMPETENTE.

Para resolverlos litigios que pudieran surgir sobre la interpretación, cumplimiento y extinción, resolución y efectos del convenio, serán competentes los Tribunales del Orden jurisdiccional Contencioso administrativo.

Sin/Fdo: Inmaculada Garrastatxu Urbaneja